

Kultura

Europako musika eskolen Emusik jaialdiko hiru kontzertu Zornotzako Herriko plazan egingo dituzte. > 11



Abadiñoako Murueta auzoan Mercadona eta Lidl saltokiak eraikitzeke plana martxan du udalak. Baina, merkataritza ereduaren eztabaida azalerratu da. Zelan ikusten dute plana merkatariek? > 2-3

Mercadona eta Lidl: onura ala galera?

Lehior Elorriaga

Egin zaitez Anbotoren Lagun eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke eta gozatu abantaila eta deskontuez

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



Mallabia > 4

Mecanica Mallabiak itxieraren aurrean mobilizazioei ekin die

Durangaldea > 9

Bidesarien kontra auto karabana lurretatik Gerediagara


Abadiño > 8

Jon Peli Larruskain gogoratu dute Traña-Matienako jaietan

Iurreta > 6

Euskara kalera ateratzeko Mintzopotea antolatuko dute

Herririk herri



Astelehenean, batzar zabala burutu zen Abadiñon, birkalifikazioaren inguruko azalpenak emateko. Herritar batzuek ezetza erakutsi zuten, kartelen bidez.

Mercadonaren eta Lidlren proiektuak komertzio ereduaren saltsa piztu du

Hainbat herritar eta merkatarik kexa agertu diote udalari, eta proiektuaren aurka antolatzen dabilta

ERREPORTAJEA ANBOTO

Duela hilabete jakin zen Abadiñoko Murueta auzoan Mercadonaren eta Lidlren supermerkatuak eraikitzeko plana martxan dagoela, eta ordutik hona, eman du zer esana. EH Bildu ez dago ados, Dendak Bai elkarte ere ez, eta Durangon, merkataritza lokalaren aldeko mozio bat babestu dute. Astelehenean, batzar zabala antolatu zuen Abadiñoko udalak proiektua azaltzeko, eta hainbat herritar eta merkatarik kexa agertu zuten. Ondorioz, proiektuak komertzio ereduaren inguruko saltsa piztu du.

Asteleheneko batzarrean, lurren birkalifikazioaren proposamenari ezezkoa adierazi zioten bertaratutako herritar gehienek, “ez” zioten kartelak altxatuta. Merkatarik batek, esaterako, “horren gai serioaren” inguruko erabakia hartzeko

galdeketa lotesle bat eskatu zuten. Galdeketa egin gura izanez gero, sinadura bilketa bat burutu beharko litzatekeela erantzun zion Jose Luis Nava-

Durangoko Udalaren baimena behar du Abadiñokoak, proiektuak aurrera egiteko

rro alkateak. Merkataritzan izango duen eraginaz kezka agertu zuten batzuek, eta udala hirigintzako plan orokorra berrikusten dabiren bitartean lursailen birkalifikazioa egitea ere ez zuten begi onez ikusi. Baina, Navarrok azaldu zuen plana aldatzeak urteak beharko dituela, eta aldaketa puntualak epeak aurreratzen lagunduko duela.

Elkarteak, udalaren eskutik

Supermerkatuen proiektua azaleratu den sasoi berean, udalak Abadiñoko Merkatarien Elkartearen sorrera dinamizatu du, eta komertzioentzat laguntzak eta deskontu bonuak eskainiko dituela iragarri du. Independentekin batera Abadiñoko gobernu taldean dagoen EAJK ere garrantzia eman dio horri: “Batetik, behar besteko tresnak jarri ditugu abian merkataritzaren etorkizuna bermatzeko eta, bestetik, firma berriak gure udalerrian instalatzea ahalbidetu dugu”. Denda txiki eta saltoki handien elkarbizitzan dago gaikoa, jeltzaleen ustez.

Durangoko baimena behar Supermerkatuentzat birkalifikatu gura den lurra Abadiñon egon arren, Durangoz mugan dago, San Fausto auzoaren

alboan. Gainera, supermerkatuentzako sarrera San Faustoko lurretatik egitea aurreikusten da, eta horregatik, Durangoko Udalaren baimena behar du Abadiñokoak, proiektuak aurrera egiteko. Beraz, hasieran uste zena baino arduraz gehiago dauka Durangok egitasmoan. “Durangok baldintzatzen badu,

proiektua asko zailduko da”, esan du Eider Uribe zinegotziak (EH Bildu). Navarrori proiektuaren atzean ibiltzea egotzi dio: “Abadiño ez dabil diruz ondo, eta horregatik, Navarro Mercadonaren bila joan da hiru bider”.

Hain zuzen ere, birkalifikazioa “ezin dela aldebakarrekoa izan” ohartarazi dio Durangoko Udalak Abadiñokoari. Baimena lortzeko asmoz Abadiñotik bidalitako hitzarmena batzordean landuko dute durangarrek.

Saltsa piztu da, eta seguru zer esana ematen jarraituko duela. Merkatarik, herritar eta sindikatuak proiektuaren aurka antolatzen dabilta.

PLANAREN EZAUGARRIAK

- 32.000 metro karratuko azalera.
- Mercadonak 7.400 metro karratu.
- Lidlek 7.500 metro karratu.
- Hirugarren supermerkatu batentzako lekua, 1.980 metro karratuko.
- Beheko solairua eta beste bi edukiko dituzte.
- Aparkalekuak egongo dira.
- 5.500 metro karratu espazio librerako. Ingurua urbanizatuko da.

AURREIKUSPENAK

- Supermerkatu biek 80 lanpostu sortzea.
- Mercadona 2017rako zabaltea.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko apirilaren 29a
14. urtea - 630. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:




“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





Txema Alberdi
Alberdi
Harategia
**Durango eta
Zornotza**

“Merkataritza txikia bereari eusten arduratu behar da”

Zer deritzozu Abadiñon merkataritza-gune berria zabaltzeari?

Ez nuke esango kontra nagoenik. Esango nuke lehia handiagoa izango dela gaur egun dauden merkataritza-guneen

eta ireki gura dituzten berrien artean, komertzio txikiekin baino. Jendea badao dagoeneko merkataritza-gune handietara. Ohitura hori orain ere badago. Horiek aukera gehiago izango dituzte orain. Jendea Burgoseraino joaten da eta Mercadonara! Edozein kasutan, merkataritza txikia bereari eusten arduratu behar da, handiak eurenagaz arduratuko dira eta.

Zer eragin izan dezake?

Merkataritza txikian eragina izan dezake, ez diot ezetzirik. Hala ere, guk bertoko kalitatezko produktuak eskaintzen ditugu, eta orokorrean, badakite horren alde estimatzen.



Rosi Onaindia
Mendi
arropa-denda
Durango

“Apurka-apurka dendak zarratzen dabiltzala gebi-bistakoa da”

Mercadona eta Lidl Abadiñora etortzearen aldekoa zara?

Merkataritza-gune handien kontra nago. Txikiei laguntza handiagoa eman beharko litzaieke.

Proiektuaren alde daudenek lanpostuak sortuko direla diote.

Hori esaten dute, bai. Hasieran lanpostuak sortzen dituzte, baina lan baldintzak ez dira batere onak.

Irekierak zein eragin izan dezake Durangaldean?

Apurka-apurka dendak zarratzen dabiltzala begi-bistakoa da. Esate baterako, San Inazio auzunean denda guztiak itxita daude, lehen komertzio asko zegoen lekua izanda. Orain, gazte koadrilek dituzte alokatuta. Hemendik aurrera, aukera gutxi daude dendak zabaltzeko eta aurrera egiteko. Komertzio bakortzean pertsona bat egoten da, eta horrela zaila da.

“Argi daukat, proiektu hauek herria hiltzea lortuko dute”

Zer iruditzen zaizu Lidl eta Mercadonaren etorrera?

Herria hiltzea gura badute, bidea aproposa dela uste dut. Argi dago, hasieran, supermerkatu bi horiek herritarrentzat nobedadea izango direla, beraz, gure denda txikientzat inpaktua handia izango da. Hala ere, espero dugu herriko jendeak komertzio txikiok dugun kalitatea kontuan hartzea, eta beraiekin dugun hurbileko harreman hori baloratzea. Azken batean, guk harreman estua dugu bezeroekin, eta beste komertzioek ez



Maria Barato
Arriandi
okindegia
Abadiño

dute horrelakorik eskainiko.

Zuen komertzioan zer eragin edukiko lukete?

Beste supermerkatuekin igarri dugun bezala, jendeak merkeenera joko duela argi daukagu. Hala ere, ogia egunerokoa denez, eta jende askok oraindik kalitateari begiratzen dionez, hori mantentzea espero dugu.

“Supermerkatu berrien irekierak ez du onurarik ekarriko gure ingurura”

Zer iruditzen zaizu Abadiñon supermerkatu gehiago ireki gura izatea?

Argi daukat supermerkatu horien irekierak ezin duela eragin onik izan Abadiñon, ezta inguruko herrietan ere. Inpresioa dut horrekin Barakaldon dagoen bezalako gune bat sortzeko asmoa dutela, eta horrek ez dio onunarik ekarri behar, ez gure herriari ezta gure komertzioei ere. Geure buruari galdetu beharko genioke zer herri eredu gura dugun, eta ze herri eredutara goazen. Honek ez dauka eta amaiera onik.



Julen Arriaga
Atxa
burdingegia
Abadiño

Hainbat komertzio handik ateak ireki dituzte Durangaldean azken urteetan. Zelan eragin dizuete?

Guk, Aki ireki zutenean, asko igarri genuen. Hala ere, konturatu gara betiko bezeroek guregana etortzen jarraitzen dutela. Beraz, espero dugu herria bizirik mantentzeko jendeak komertzio txikiei bultzada ematen jarraitzea.



Lali Salinas
Caribu
arropa-denda
Abadiño

“Norbaitek pentsatu al du galduko diren lanpostuetan?”

Zer iruditzen zaizu Lidl eta Mercadona Abadiñon zabaldu gura izatea?

Ez zait ondo iruditzen. Honekin lortu behar duten bakarra mundu guztia supermerkatu horietara mugitzea da.

Horrela, inguruko herriak hutsik gertatu dira. Gobernu taldekoen hitzetan, honek lanpostuak sortuko ditu. Baina, norbaitek pentsatu al du galduko diren lanpostuetan? Nolako lanpostuak izango dira sortuko diren horiek?

Zure komertzioan zer eragin eduki lezakete?

Arropa-denda bat izanda, ez dut uste modu zuzenean eraginik izango dutenik. Nire inguruko merkataria ditut gogoan, beraz, supermerkatu hauek zabaltzea bidegabekeria dela iruditzen zait. Gainera, ez nuke gura eguneroko gauzak erosteko supermerkatu handi batera joan behar izatea.



Karmele Eguren
Eguren
etxetresnak
Durango

“Supermerkatuak badagoz dagoeneko; alde horretatik nahiko konpleto gaude”

Zer iruditzen zaizu Mercadona eta Lidl-en etorrera?

Guri kalte egingo digula uste dut. Lanpostuak sortuko dituela diote, hori saltzen dute, baina aztertu egin beharko

litzateke zer kalitate eta zer baldintzako lanpostuak diren. Bestalde, herriko komertzioekin zer gertatzen den ikusi beharko da. Gainera, supermerkatuak badaude dagoeneko. Alde horretatik, nahiko konpleto gaudela esango nuke. Eta berrien etorrerak orain daudenei ere eragin dakieke.


Zer egin daiteke komertzio eredu bien arteko talka horren aurrean?

Ez da erraza, baina hau dena baimentzen dutenek beti diote gure alde daudela, baina, gero, justu kontrakoa egiten dute. Azken batean, honako galdera honi erantzun behar diogu: zelako herria gura dugu?

“Hogei urtetik hona gertatzen ari den guztia bazetorrela ikusten zen”

Zer iruditzen zaizu supermerkatu berrirei atea irekitzea?

Inpaktu handia izango duen zerbait da eta, oro har, denei eragingo diela uste dut; komertzio txikiei, baina baita euren arteko ere. Hala ere, komertzio txikia izango da gehien igarriko duena. Baina, tira, orain 20 urtetik hona gertatzen ari den guztia bazetorrela ikusten zen. Frantziara eta Alemaniara bazoaz, herriguneetan ez dago ezer. Baina gauzak sekula ez dira egiten egin behar direnean. Orain berandu dela uste dut.



Tomas Bordes
Merkatu Plazako
arrangedia
Durango


Merkatu Plazak salerosketak egiteko nukleo propio bat osatzen du Durangon.

Bai, baina guk ere, apurka, igarri egingo dugula uste dut. Gero, faktore ezberdinek eragiten dute. Esaterako, Durango Alde Zaharrean ezin daiteke edonori sartu kotxeagaz, eta horrek beste traba bat sortzen du.

“Plataforma bat sortzen gabilta, eta herritarrak gonbidatuta daude”

Dendari lez, zelan ikusten duzu proiektua?

Merkatari moduan, nire ustez, ez da ona. Ez bakarrik Abadiñorako, baita Durangalde osorako ere. Herri txiki asko gara, eta, nire ustez, denetan igartzen da. Jendearen aldetik, ulertzen dut; eroso da. Baina, bestaldetik, herria hiltzen dabil astiro-astiro. Ez dut gura horrelako herri bat, ez dut Barakaldo txiki bat gura hemen. Gainera, Mercadonak ez du hemengo ezer saltzen, eta dirua ez da bertan geratzen.



Goretti Galan
Dendaria
Abadiño

Zer deritzozu udalaren jarrerari?

Abadiñoko etxe batzuk egiteko egundoko arazoak egon ziren, eta orain, aldaketa bat egun batetik bestera? Zer gura du udalak honegaz, dirua hartu? Zer intentzio dago atzetik? Alkateak guztia atzetik egin du. Proiektuaren aurka plataforma bat sortzen gabilta, eta herritarrak ere gonbidatuta daude.

Mecanica Mallabiko enpresa komiteak proposamena helarazi dio zuzendaritzari

Besteak beste, enpresa saltzekotan, aktibitate osoa saltzea proposatzen dute, 81 langile subrogatuz



Joan zen zapatuan, Mecanicas Mallabiko beharginak manifestazioa egin zuten Bilbon.

MALLABIA Jone Guenetxea ALFA taldeko Mecanica Mallabi enpresa likidazio fasean sartuta dago. Egoera honetara helduta,

LAB sindikatuak proposamena eraman du enpresa komitera. Ekimenaren helburua, itxieraren aurrean, "langileen esku-

bideak bermatzea" da. Enpresa komiteak eta beste sindikatuek bat egin dute ekimenagaz. Adostutako idatzian zuzendaritzari

eskatzten diote enpresa erosteko interesatuen bat balego, aktibitate osoa saltzeko, langileen jarduna barne. "Enplegu gehiena salbatzea da lehentasuna", azaldu du Mari Eli Urriolabeitia LAB sindikatuko ordezkariak. Era berean, borondatezko irteeren kasuan, kalte-ordainak aurreko urteetan irtendako langileek jasotako kopurura heltzea eskatzen dute. Hori dena gauzatzeko, eta soldatak ordaintzeko, tesoreria bermatua izatea eskatzen dute. Aste beteko epea eman diote zuzendaritzari erantzuna emateko.

Azken urteetan, Mallabiko enpresa 180tik 81 langile izatera igaro da. LAB sindikatuak kozuzendaritzaren "kudeaketa txarra" salatu du sarritan.

Txori kantarien lehiaketa, igandean

BERRIZ M.Z.

Berrizko Udalaren laguntzarekin Barakaldoko Txinbo Elkarte Ornitologikoak txori kantarien lehiaketa antolatu du, igandera.

Berrizen egingo den txapelketa honetan, txoka eta kardantxilo arrazako txoriek parte hartuko dute. Horrez gain, bertara biltzen den zale orori beren txoriarekin parte hartzeko aukera ematen dietela adierazi dute antolatzaileek.

Maiatzaren 1ean egingo da lehiaketa hau, igandean, eta 9:30ean izango du hitzordua, Berrizko udaletxeko lorategian. Antolatzaileek adierazi dutenez, euria eginez gero, Olakuetako probalekuan egingo litzateke lehiaketa, udal-tertxeko lorategian egin beharrean.

484 lagunek babestu dute galdeketa egitea

Joan zen domekan bozketa egin zuten Elorrion

ELORRIO J.G. / M.O.

Gure Esku Dago mugimenduak deituta, bozketa sinbolikoa egin zuten Elorrion, joan zen zapatuan. 2017an etorkizun politikoaren inguruko galdeketa egitea da ideia, eta horren inguruko interesa ezagutu gura

zuten antolatzaileek. Bada, 484 lagunek babestu dute herri-galdeketa ideia, eta beste hiru herritarrek zuri bozkatu zuten.

Ondorioz, emaitzak kontuan hartuta, elorriarrek galdeketa baietz esan diotela uste du mugimenduak.



Guztira, 487 lagunek parte hartu zuten bozketan.

Herritarrek begi onez ikusten dute txupinazioa aurreratzea

OTXANDIO J.D.

Otxandion uztailean ospatzen diren Santamaña jaiak antolatzekeo ardura duen jai batzordeak hainbat gairen gaineko iritzia jaso du herritarren artean. Esaterako, aurtun, txupinazio eguna domeka da, uztailaren 17a, eta txupinazioa, arratsalde beharrean, eguerdian botatzea herritarrei zer iruditzen zaien ere jakin gura zuten. Gai horren inguruko 185 iritzi jaso dituzte: 155 txupinazioa eguerdira aurreratzearen alde agertu dira, eta 30 kontra. Beste galdera bat sokamuturrak antolatzearen inguruko zen: 178 erantzun jaso dituzte. 94 antolatzearen aldekoak dira, eta 84, berriz, antolatzearen kontrakoak.

Igerilekuko taberna esleitzeko lehiaketa, hilaren 13ra arte

ATXONDO J.D.

Udalak igerilekuko taberna esleitzeko lehiaketa zabalik dago. Oinarriak udaletxean jaso daitezke. Interesatuta daudenek maiatzaren 13ra arte dute euren eskaintzak aurkezteko epea. Horrez gainera, udalak beharginak hartuko ditu udan igerilekuan lan egiteko. Eskari orriak udaletxean daude esku-ragarri, maiatzaren 13ra arte.

Herri ortuak

Udalak herri ortuak egiteko asmoa dauka Apatan. Hainbat urtean gauzatu gura dabilen proiektua da. Horrela, herri ortu horietan sail bat landu gura duenak izena eman beharko du udaletxean, maiatzaren 13a bitartean.

Gaztetxetik, etxebizitza eskubidea aldarrikatzera

ZALDIBAR I.E.

Etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko gaur eta bihar egingo diren mobilizazioen antolakuntzan parte hartu du Zaldibarko Gaztetxeak, Hamaika Teilatu eta Elorrioko Gaztetxearekin batera. Elkarretaratzea burutuko dute Euskal Herria kalean, gaur, 19:30an, eta etxebizitza eskubidearen alde bihar, 19:30ean, Durangon egingo den manifestaziorako ere deia egin dute gazte zaldibartarrek.

Gaztetxetik azaldu dute herriko etxebizitza hutsen azterketa egin berri dutela, eta 244 daudela Zaldibarren egoera horretan. Bestalde, inkesta bat burutu dute, eta gazteen batez besteko emantzipazio adina 30 urtekoa dela ondorioztatu.

APIRILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

SAN AGUSTIN. SARRERAK
"Zer duzu Amy?" antzezlanerako 2 sarrera. Maiatzak 5, 20:00tan.

URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.

SALTSAN KATERIN. MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

SAN AGUSTIN. SARRERAK
Umeentzako "Ensueños" ikuskizunerako 2 sarrera. Maiatzak 15, 18:00tan.

HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa
Pedro Iturria Sarasibaren "Euskarari gorazarrea" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" CDa.

ABANTAILAK

- Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.



Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

**Etorri
ikustera!**

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrión eta Durangon

Euskara kalera ateratzeko Mintzopotea antolatuko dute

Maiatzaren 6an egin dute hitzordua antolatzaileek, Dantzari auzoan, 19:00etan



Asteon aurkeztu dute ekimena antolatzaileek, Ibarretxe kultur etxean.

IURRETA Aitziber Basauri Euskara kalera atera guran Mintzopotea antolatu dute Iurretan, maiatzaren 6rako. Tra-

goa hartu bitartean, euskaraz eta euskararen inguruan berba egitera gonbidatu gura dituzte herritarrak. Euskararen Ahol-

ku Batzordeak eratutako Mintzopotea 19:00etan hasiko da.

Euskara kalera ateratzeaz gainera, herritarrak sentsibilizatzea ere badu helburu Dantzari auzoan izango den Mintzopoteak. Word café metodologia erabilia, mahaia jarriko dituzte eta, talde txikietan antolatuta, askotariko gaiak proposatuko dituzte euskaraz hitz egiteko. Lehenengo tragoa udalak gonbidatutakoa izango da; jatekoa ere eskainiko dute. Herrian “erreferente” izan daitezkeen pertsonak ere gonbidatu dituzte. Hartara, Julian Gorospe, Gorka Lazkano, Kristina Mardaras, Jose Jabier Abasolo ‘Tiliño’, Ziortza Aldekoa-Otalora eta Anton Mari Aldekoa-Otalora izango dira bertan.

Udalak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (2016-2019) barruan antolatu dute, eta parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak. Izena emateko deitu 94 620 12 00 telefonora edo idatzi idadzkaritza@iurreta.net-era. Azken eguna da gaur.

Garraio alternatibo baten bila dabilta

DURANGO M.O.

Durangon, mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzat garraio alternatibo baten bila dabilta. Joan zen asteko osoko bilkuran onartu zuten gaia, Herriaren Eskubideak proposatu eta gero. Datozen sei hileetan zehar, garraio berri hori zelan ezarri aztertuko dute udaleko batzordean.

Herriaren Eskubideak gogoratu du mugikortasun arazoak dituzten asko kanpoaldean bizi direla

Herriaren Eskubideak gogoratu du mugikortasun arazoak dituzten asko kanpoaldean bizi direla, “erdigunetik eta zerbitzu publikoetatik urrun”. Adibide lez, ambulatorioa, udallexea edo zerbitzu kulturalak ipini ditu alderdiak. Pertsona horiek, “gainerako herritarren kondizio berberak edukitzea eskubidea dute”, alderdiaren ustez.

Durangon hasiko da 2016 Bidearen seigarren etapa

DURANGO J. Guenetxea

Gaur amaituko da, 20:00etan, 2016 Bidearen seigarren etapan izena emateko epea. Izen-ematea Otxandioko Miru Gain mendi-taldearekin harremanetan jarriz (656 757 713), Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren webgunean eta Donostia 2016ren infopuntuan (Alderdi Ederren) egin daiteke.

Ibilian egiten da kultura goiburua, mendizaletasuna eta kultura uztartzea da Donostia Europako Kultur Hiriburuaren antolatzaileen helburua. Ibilbidea Durangotik abiatu eta Otxandion amaituko da, Hontza Extremen.

17 km-ko ibilbide honetan, mendiaz gainera, kulturaz gozatzeko denbora izango dute ibiltariek. 09:30ean, Etxaburu-ko Dorrearen kondairaren istorioa entzun eta ikusiko dute Kontu Kantoi ipun kontalari eta marrazkilaria eskutik. Honez gain, 12:00etan, Urkiolako Santutegiaren bertso bidezko azalpenaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Magdalena lencería

Ermodo kalea, 27 - Tel.: 94 402 40 43 - DURANGO

*Neurri handietan
espezializatutako denda*

- Aholkularitza pertsonalizatua ·
- Denboraldi berria lentzerian eta bainujantzietan ·
- Kopak: A / B / C / D / E / F / G ·



HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



OTXANDIOKO HAURRESKOLA
Mainondo, 7A OTXANDIO
Tel.: 945 450 997
otxandio.otxandio@haurreskolak.eus



ZALDUZUBIETA

ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia, z/g ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
DATAK**
maiatzaren 2tik,
maiatzaren 11ra

Jon Peli Larruskain gogoan, hasi dira San Prudentzio jaiak

Maiatzaren 8ra arteko jaiak abiatu zituzten eguaztenean, Traña-Matienan



Eguazten iluntzean ipini zuten Donien Atxa eta hasi zituzten San Prudentzio jaiak.

ABADIÑO Itsaso Esteban Eguaztenean ipini zuten San Prudentzio jaien hasiera iragarren duen Donien Atxa, Traña plazan. Iluntze dantza taldekoen emanaldia eta Ustekabe fafarrearen emanaldia, eta Aste Santuan auto istripuz hil zen Jon Peli Larruskain Jai Batzordeko kide izandakoaren omenaldia egin zituzten auzoko jaiak abiatzeko.

Egunez zein gauez, kultur zein kirol arloko hainbat ikuskizun gozatu eta askotariko ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek, Jai Batzordeak zein Txosnaguneak antolaturiko programari esker.

Krisi ekonomikoa jasan dutenei laguntzeko ekintza solidarioa burutzeko aukera ere eskainiko dute, San Prudentzioetan. Izan ere, aurtan, lehenengoz,

txosnaguneak janari bilketa egingo du Elikagaien Bankuari emateko. Maiatzaren 6an, arratsaldean, txosnagunean jasoko dituzte herritarrek emandako jaki ez iragankorrek, eta Gurutze Gorriaren bitartez emango dizkiote Elikagaien Bankuari. Egun horretan ezezik, jaietako beste egun guztietan ere hartuko dituzte herritarrek emandako jakiak, txosnagunean.

Euskara sustatu gura dute ostalaritzan eta merkataritzan

ZORNOTZA J.D. Herriko merkataritza eta ostalaritza guneetan euskararen erabilera sustatzeko asmoz, udaleko Euskara Zerbitzuak erabileraren inguruko diagnosia egingo du. Horretarako, euskara teknikariak dendaz dendako bisitak egingo ditu, eta nork bere negozioan euskararen erabilera handitzeko udalak zer baliabide eta hobari eskaintzen dituen ere azalduko du: itzulpen laburrentzako doako zerbitzua, errotuluak eta korporazioaren irudiak euskaraz jartzeko diru-laguntzak, euskara ikasteko oinarrizko ikastaroak, euskara ikasteagatik diru-laguntza...

“Zerbitzua euskaraz emateak sektoreari balio erantsia dakarkio”, dio bisitak iragarri Andoni Agirrebeitia alkatetik establezimendu denetako jabeek bidalitako gutunak: “Bezeroari eskaintzen zaion zerbitzua osoagoa delako, eta bezero gehiagorengana heltzeko bidea ematen duelako”.

Donostiako Aquariumera doaz garaitarrak

GARAI M.O.

San Migel nagusien elkarteak antolatuta, Donostiako Aquariumera bisita egingo dute garaitarrek datorren barikuan, maiatzaren 6an. Txangoan parte hartu gura dutenek, Herriko tabernan eman behar dute izena, hilaren 4a epemuga dela.

Txangoan parte hartu gura dutenek Herriko tabernan eman behar dute izena

09:30ean irtengo dira Garaitik, eta 12:00etarako iragarri dute Aquariumeko bisita. Gero, 14:30ean, La Ceba jatetxean bazkalduko dute.

Arratsaldea ere Donostian pasatuko dute, baina bakoitzak nahi duen plana egin ahal izango du, helburu horregaz arratsaldea libre ipini dute eta antolatzaileek. Plan osoa 28 euroko prezioan ipini dute.

Gurasoak aktibatu gura dituzte, euskararen erabilera indartzeko

Programan parte hartzeko gurasoen interesik ba ote dagoen jakin gura dute

MAÑARIA M.O. Herrian euskararen erabilera indartzeko asmoz, gurasoak aktibatu gura ditu udalak. Umeen eredu direla kontuan hartuta, gurasoen hizkuntza ohituretan eragitea da helburua. Ekime-

netan parte hartu gura dutenei, udaletxean edo liburutegian izena emateko eskatu die udalak. Izan ere, programa bat martxan ipini aurretik, gurasoen partetik interesik ba ote dagoen jakin gura du.

Herriko administrazioak azaldu duenez, Mañariko parkeetan gaztelania asko erabiltzen da. “Guraso euskaldunak entzuten dira gaztelaniaz berbetan; haurrekin ez bada, gurasoen artean”.

Jaietako kartel lehiaketa abiatu dute, 250 euroko sariagaz

IZURTZA J.D. Izurtzan lehiaketa abiatu dute asteen, irail hasieran ospatuko dituzten jaiak iragarriko dituen karteleko irudia zein izango den erabakitzeko. Maiatzaren 31ra arte dago proposamenak

aurkezteko epea, udaletxean. Irudi irabazleak 250 euroko saria jasoko du. Oinarriek dagoenez, proposamenak informatika euskarriari (CD edo USB memoria) eta paperean inprimatuta aurkeztu behar dira. Kartelak egiteko erabili beharreko teknika librea da eta denek ‘Izurtzako Jaiak 2016’ testua izan behar dute. Oinarri denak udaletxean daude eskuragarri. Epaimahaiak kultura eta jaien batzordeko kideek osatuko dute aurtan.

Aurrematrikula, maiatzaren 2tik 12ra

IES JUAN OROBIOGOITIA BHI

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA BATXILERGOKO MODALITATEAK (D eredua)

- ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Ikasleen beharrezanetara egokituriko heziketa.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Gurasoen, ikasleen eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.
- Iurretan, bere inguruko udalerriekin oso ondo komunikatua.

KALITATEA HEZKUNTZAN

Olaburu, 3 IURRETA - Tel.: 946 810 461 - www.orobiogotiabhi.hezkuntza.net

Autoen karabana eginez, ezetz esango diote AP8ko bidesariari

Bihar, Iurreta-Gerediaga doako zatia zeharkatuko dute, protesta legez



AP8 Peajerik Ez Plataformako kideek bidesariaren kontrako 15.000 sinadura batu dituzte. Lehior Elorriaga

DURANGALDEA J.Guenetxea AP8-Peajerik Ez plataformak Bizkaian bidesariak kentzeko mobilizazioekin jarraitzen du. Bihar, apirilaren 30ean, Durangaldean doako den autobideko zatia autoen karabana eginez zeharkatzeko hitzordua jarri dute. Arriandiko industrialdean batuko dira, 12:00etan, Iurretako ordainlekuan sartu eta Gerediagan irteteko. "Oraindik ez zara nekatu orain 13 urte amortizatu-tako autobidea ordaintzeaz?"

lelopean, ekimenagaz bat egiteko kartela atera dute. Durangaldeak Bizkaiko bidesaririk bako beste errepide azkarren tratamendu bera izan behar duela uste dute plataformako kideek.

Pradalesen zain

AP8ko bidesariaren kontra lanean diharduen plataformak otsailean batzartzeko eskaria bidali zion Ekonomia eta Lurralde Garapenerako diputatu Imanol Pradalesi. Azpiegitu-

ren zuzendariagaz batzartzeko aukera eman zietela azaldu du Juan Carlos Poderoso plataformako kideak: "Guk Pradalesekin zuzenean berba egin gura dugu, eta batzarraren zain gaude". Gaineratu duenez, "Pradales diputatua gure plataformarekin batzartzea saihesten dabil, arazo garrantzitsu hau zelan konpondu ez dakielako, edo ez duelako konpondu nahi. Ostrukaren antzera, Pradales jauna ezkutatu egiten da".

Elkarteentzako diru poltsa handitu dute

DURANGALDEA M.Onaindia Amankomunazgoak badauka 2016rako aurrekontua. Aurretik iragarrita zegoen lez, EAJk ez du babestu aurrekontu proposamena, ezta AIk ere, baina EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen botoak nahikoa izan dira aurrera egiteko. Elkarre sozialei eskaintzen dien laguntza handitu egin du Amankomunazgoak, 38.000 eurotik 50.000ra. Diru-laguntza horiek ez dira izendatuak izango, lehiaketa publikora aterako dituzte. Goiztidi Diazen (EAJ) ustez, orain arte laguntza jaso duten elkarteek, aurten "ez dute bermatuta" dirua jasotzea, Durangoko Herria auzo elkarre kasu. Endika Jaiok (EH Bildu), poltsa handitu egin dela eta Diazek esandakoa "gezur borobila" dela dio, baita "prozedura gardenagoa" dela ere.

EH Bilduko eta Herriaren Eskubideko kideen ustez, "gizarte zerbitzuak lehentasun" dira aurrekontuan. Bestalde, Neguko aterpetxea indartuko dute, eta zaborrak batzeko sistema ere hobetu gura dute. Julia Pererak (HE), besteak beste, garrantzi berezia eman dio indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako zerbitzu juridikoa Amankomunazgoak eskaintzeari; Aldundiaren ardura da, baina une honetan ez du eskaintzen.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Etxebizitzak bete

Etxebizitza publikoak inmobiliaria batean salgai. Alegia, denon diruarekin finantzatu-tako etxebizitzak, zozketarik gabe, enpresa pribatu baten bitartekaritzarekin salgai. Durangon hori gertatzen ari da, etxebizitzaren inguruko politika publikoek porrot egin dutelako.

Orain dela gutxi iragarki bat ikusi nuen inmobiliaria batean. Faustegoienan erakitako etxebizitza publikoak iragartzen zituen. Facebooken komentarioa egin nuen, eta enpresaren jabea kexatu egin zitzaidan kalean. Berez, agerikoa da kritika ez dela enpresari zuzendutakoa. Kritika herri honetan erabaki politikoak hartu dituztenentzat da. Izan ere, enpresa horiek negozioa egiteko eskubidea daukate; ezin dena onartu da babes ofizialeko etxebizitzekin negozio pribatua sustatzea.

Larunbatean, Andra Mari-tik manifestazioa deitu dute, etxebizitza eskubidea dela aldarrikatzeko. Beharrezkoa da kaleak betetzea mota honetako ekimenekin, eskubidea zena negozio bihurtu delako. Baina, benetan beharrezkoa dena da etxebizitza hutsak pertsonen betetzea. Horretarako, aurreko urtean onartutako Etxebizitza Legean badugu tresna bat: hutsik dauden etxebizitzei udalek kanon bat ezartzeko ahalmena. Kanona, alegia, etxebizitza hutsak betetzeko bultzada. Guk, behintzat, urratsak bide horretan ematea aldarrikatuko dugu udalean, etxebizitza hutsak pertsonen betetzeko.

DURANGALDEA ASTEON

Hika berba egiteko topalekua sortu dute

DURANGO > Guka euskaltzaleen bilguneak hitanoz berba egiteko topalekua antolatu du, eta maiatzaren 5ean izango da lehen hitzordua, 19:30ean, Plateruenean. Hika berbetan ikasi gura dutenei aukera bat eskaini gura diete horrela, eta dagoeneko berba egiten dakitenei ere gune bat erraztu gura diete, berriketaldiaz.

Eskualdeko kartografia erakusketan ikusgai

ELORRIO > Gerediaga Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko iaz buruturiko ekimenetako bat erakusketa honen prestaketa izan zen. Ramon Oleaga kartografiatzaileak prestatu zuen, eta bisita gidatua eskainiko du, maiatzaren 3an. 19:30ean izango da inaugurazioa, eta 31ra arte egongo da Iturri kultur etxean ikusteko aukera.

San Migeletako kartel lehiaketa martxan

IURRETA > Dagoeneko martxan dago San Migel jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Parte hartu gura dutenek Ibarretxe kultur etxean aurkeztu behar dituzte lanak, ekainaren 17a baino lehen. Kartelak ekainaren 23an plazan ipiniko dituzte ikusgai, eta herritarren botoekin aukeratu dute irabazlea. 500 euro da saria.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
astekaria 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoek eta emandako iritzien erantzukizunik.

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



anboto.org
MUGIKORREAN



> Berbaz

Juan Karlos Alonso | Psikologoa | Donostia, 1959

“Errespetu faltaren aurrean, askotan, urrundu egiten gara, zoritxarrez”

Maiztegi herri eskolak eratuta, eskola jazarpenari eta errespetu faltari buruzko ikastaroa ematen ari da



> BERBAZ Aitziber Basauri
Eskola jazarpena eta errespetu falta dute hizpide, egunotan, Ibarretxe kultur etxean. Guraso eta hezitzaileei zuzenduta, ikastaroa antolatu du Maiztegi herri eskolak, eta, horretarako, Juan Karlos Alonso psikologoa gonbidatu dute. Familian, eskolan eta gizartean oro har, eragindako errespetu faltaren zergatiak argituko ditu berak. Gurasoek seme-alaben arteko harreman gatazkatsuetan nola jokatu ere argituko du. Eta eskola jazarpenaz ere jardungo du.

Errespetu faltari aurre egiteko tresna eta aholkuak eman gura dituzu?

Eskola jazarpen egoera batera heldu arte ez itzarotea, horretara heltzen ez uztea, horixe dute helburu ikastaro honetan. Hasiatik, edozein errespetu falta bideratzen laguntzea. Gainera, uste dut ezin garela soilik ardu-

ratu gure seme-alabak eskola jazarpenaren biktima direnean. Seme-alabekin bereiziki adi egon behar dugu, eta jazarpen egoeraren eragile edo egoera horren lekuko izan daitekeenaren aurrean nola jokatu jakiteko aholkuak ematen ditut.

Zer da eskola jazarpena?

Edozein ikasle bihurtu daiteke eskola jazarpenaren biktima. Denbora luzean, behin eta berriro ematen den egoera da eskola jazarpena, eta beti min egiteko borondateagaz. Jazarritako ikaslearen eta jazarpena eragiten duenaren artean botere harreman bat egoten da; biktimak ezin du bere burua defendatu. Horri deitzen zaio eskola jazarpena.

Ezaugarri zehatz batzuk ditu, beraz, eskola jazarpenak.

Hala da. Gatazka asko daude neska-mutilen artean, gure artean ere bai, eta edozein gatazka

ez da eskola jazarpena edo bullying-a. Botere maila bat egoten da, indefentsioa, beti egoten da min egiteko borondatea edo intentzioa: intimidazioa, tiranizazioa edo mehatxuak egoten dira.

Ikastetxeetan askotan ematen da eskola jazarpena?

Ikerketa asko daude, eta oso anitzak dira: Euskal Herrian, Espainian, Europan zein munduan. Ikerketek diote, oro har, hirutik batek bizi izan duela inoiz eskola jazarpena. Datuak asko dira, eta ikerketak ere era anitzetan egiten dira. Dena dela, gai hau ez dagokio bakarrik jazarpena jasotzen duenari. Eskola jazarpena eragiten duenari ere badagokio, eta baita jazarpena ikusi edo ezagutu arren ezer egiten ez duenari ere. Azken egoera hori askotan ematen da, eta horretaz ere kezkatu behar genuke. Zentzu horretan, jazarpena denori dagokigun gaia da.

“*Eskola jazarpena betidanik egon da, egia da hori; baina, egoerak bestelako izaera hartu du*”

“*Teknologiaren eragina izugarria da, hainbat egoera eta portaera ezerezten direlako*”

Erasoa seinalatzeaz ari zara?

Hori da. Gai honetan hiru egoera bizi daitezke: jazarpena sufritzen duen ikaslearena, jazarpena eragiten duenarena, eta jazarpena ikusi edo ezagututa era pasiboan jokatzeko duen ikaslearena. Hiru egoera horietan zer egin jakiteko zenbait aholku ematen ditut ikastaroan.

Errespetu falta dago eskola jazarpenaren atzean?

Bai. Gizartean dagoen arau eta mugen ahultasuna, eta balio-heziketaren ahultasuna daude oinarrian, eta hori lantzen dute ikastaroan. Balioen artean kokatuko nituzke, adibidez, errespetua eta aniztasuna. Helduen artean autoritatea ez dadin erabili lan egiten dut, eta baita trebetasun sozialak (‘mesedez’, ‘eskerrik asko’, ‘barkatu’, ‘ardura zaizu?’..) garatzen ere. Teknologiarenekin eragina ere izugarria da, horien bidez hainbat egoera eta portaera ezerezten direlako: adibidez, bideojokoak. Jotzen jolasten dira gaur egungo umeak; bideojokoetako pertsonaiak hiltzen ondo pasatzen dute, esaterako, eta puntuak irabazten dituzte. Apurka-apurka, eragin handia du horrek, eta errespetu falta dakar horrek.

Zergatik ematen da errespetu falta hori?

Hainbat faktore daude. Adibidez, aipatutako heziketa emozionalaren ahultasuna. Gaur egun, enpatia kontzeptu hori

lantzea oso garrantzitsua dela uste dut; bestearen azalean, ikuspuntuan sartzeko ahalmena. Gizarteari dagokigu, eta batez ere familiari, haurrak enpatian eta errespetuan hezitzea. Oso garrantzitsua deritzot balioetan hezitzeari. Hala ere, errespetu falta horren aurrean, askotan urrundu egiten gara helduak, zoritxarrez: umeei ez diegu esaten ‘aizu! hau egitea edo hura esatea ez dago ondo...’. Haur eta nerabeek ‘hau ondo dago’ edo ‘hori txarto dago’ esango dien heldu bat behar dute, eta oso garrantzitsua iruditzen zait oso txikitatik erakustea zer dagoen ondo eta zer txarto. Argi azaldu behar zaie umeei zer den ona eta zer txarra. Hainbat dira balioak, eta heldutasunaren arabera igorri behar dizkiegu. Hala ere, eredu bihurtuz heziko dugu balioetan.

Uste duguna baino gehiago ematen da jazarpena?

Askotan esan da eskola jazarpena betidanik egon dela. Egia da hori, baina gaur egun egoerak bestelako izaera hartu du, areagotu egin dute hainbat faktorek. Hor daude teknologia berriak ere. Dena den, egia da eskola jazarpenaren definizioa aplikatuz gero salatutako egoera guztiak ez direla jazarpena. Eta ziur nago beste egoera batzuek ihes egiten dizkigutela, eta ez ditugula jazarpenaren definizio horrekin identifikatzen. Hainbat dira faktoreak. Errespetu falta horrek nola eragiten duen azaltzen dute ikastaroan, eta hori jazarpen bilakatzeko dauden faktoreak ere bai.

Teknologiaren eragina handia izan da, ezta?

Bai. Hor dago ziberbullinga. Seme-alabek eta guk geuk teknologia berrien erabilpen desegokia egiten dugu. Teknologia berrien bidez ezin da edozein gauza esan, eta irizpide hori kontuan hartuta hezi behar ditugu seme-alabak. Argi esan behar diegu delatua dela. Bideo-jokoaren mundua ere izugarria da, eta kontuz ibili behar dugu. Ezin diegu 13-14 urteko umeei 18 urtetik gorakoentzako bideojokoak erabiltzen utzi. Teknologia berriekin mugak jarri behar ditugu.

Muga asko jartzetik batera mugarik ez jartzera heldu gara?

Hori horrela dela oso argi daukat. Ez ditugu mugak jartzen, ez dago ondoriorik, eta inpunitatea nabaria da. Horretan, eredu moduan, erru guztia geurea da.

Gazteek literaturari eskainitako Ateneoa txokoa aurkeztuko dute Sorginolan

Ainhoa Urien, Paddy Rekalde eta Peru Magdalenagaz mahai-ingurua egingo dute, gaur, 19:00etan



Laukote hau eta beste bi kide ibili dira jendeak emandako liburuak eta DVDak sailkatu eta Sorginola Gaztetxekeko liburutegia atontzen.

> LITERATURA Itsaso Esteban Literaturari loturiko askotariko ekintzak burutzeko, zein liburu eta filmak maileguan hartu ahal izateko espazioa atondu dute Durangoko Sorginola Gaztetxean. Ateneoa izenez bataiatu dute, eta gaur, 18:30ean, ipini dute hitzordua proiektua zein liburutegia-

ren funtzionamendua ezagutu gura duten guztiei aurkezpene egiteko. Gazte literaturazaleen taldea zein Sorginolako liburu eta filmen espazioa bera ere Durangora zabaldu gura dute gaurko ekimenagaz. Literaturari buruzko mahai-inguru bat ere egingo dute, gaur, 19:00etan,

Durangaldeko hiru idazlegaz: Ainhoa Urien, Paddy Rekalde eta Peru Magdalena gonbidatu dituzte Ateneora. Idazleei berbarako gaia emateko, galdera sorta prestatu dute Ateneoek: sortzaile bakoitzak literaturaren munduan zelako esperientzia bizi izan duen jakin gura dute.

“Kultur arloko zein gazteen aisialdirako alternatibak eskaintzea” gura dute taldekie, Durangon horretarako beharrezana nabari dutelako. Gazteen ikuspuntutik eta gazteentzat arituko dira.

Talde honen indargunerik handienak parte hartzea eta

malgutasuna direla diote Ate-neoko kideek: beste norbaitek antolatutako ekintzen hartzaile hutsak barik, proposatu, adostu eta euren intereseko proiektuak martxan ipintzen dituzte Sorginola Gaztetxekeok.

Espazioa egokitu ostean, hainbat jendek etxetik eramandako liburuak eta DVDak biltzen eta sailkatzen jardun dira Ateneoa proiektuko dozena erdi kide, irailetik. Jendeak Sorginolan esku utzitako material guztitik, liburutegirako aproposena aukeratu eta ordenatu dute: euskarazko prosaz bete dute apalategi bat, hainbat generotako filmez beste bat, eta bildumentarako atondu dituzte beste hainbat apal. Bibliografiari dagokionez ere, alternatiba izan gura dute: beste inon topatzea zaila izaten den literaturak du lehenasuna Ateneoan.

Gaurkoaren aurretik ere egin izan dituzte ekintzak Ateneoan: ipuin kontalarien emanaldiak eta solasaldi literarioa, kasurako, eta literaturari loturiko askotariko ekimenak antolatzen jarraitzeko gozoz daude: Durangon literatur sorkuntza bultzatzeko ekimenen bat, edo hileroko irakurleen klubak darabiltzate buruan.

Dozena erdi lagun dabilta, orain, Ateneoan, baina, taldera batu gura duen edozeinek atek zabalik dauzkala azpimarratu dute taldekideek.

Europako musika eskolen topaguneetako bat izango da Zornotza

Hiru kontzertu izango dira, maiatzaren 5etik 7ra

> MUSIKA J.D./I.E. Europako musika eskolen Emusik jaialdiaren XII. edizioaren egoitzetako bat izango da Zornotza, maiatzaren 5etik 7ra. Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren programazioaren barrukoa da jaialdia, eta hiru kontzertu ekarriko ditu, maiatzaren 5etik 7ra, Zornotzako plazara —euria bada, Zornotza Aretora.

Maiatzaren 5ean izango da lehenengo emanaldia: Esloveniako Zus Jana Fischera-Kvetona musika eskolako dantza taldearen emanaldia ikusteko aukera egongo da, 18:00etan. Zubiaur Musika Eskolako dantza klasiko eta hip-hop-funky taldeko partaideek lagunduta

arituko dira. Maiatzaren 6an, 18:30ean, Kataluniako L'esplufonica banda sinfonikoaren eta Alemaniako Grooving High Big Band taldeen txanda izango da.

Azkenik, Suitzako Monkish musika taldea eta Orchester der MS Brugg gitarra taldea, eta Gironako Torroella de Montgri herriko musika eskolako banda eta abesbatza etorriko dira Zornotzan aritzera, maiatzaren 7an, 11:30etik aurrera.

Zornotzako Musika Eskolako irakasle eta ikasleek eta ZIK abesbatzak ere parte hartuko dute kontzertuetan. Europako 8.500 musika ikasleek hartuko dute parte jaialdian, eta 120 emanaldi eskainiko dituzte.

‘Errementari’ film luzearen grabaziorako Durangaldeko umeak behar dituzte

Udazkenean edo neguan grabatuko dute Paul Urkijo arabarraren filma

> ZINEMA I.E. Paul Urkijo zuzendari arabarraren *Errementari* filmean parte hartzeko, Durangaldeko ume euskadunen bila dabilta. Zortzi eta hamar urte arteko neskatok, eta zortzi eta hamabi urte

arteko mutikoak behar dituzte-la eman dute jakitera filmaren arduradunek.

Hautaketa prozesuan parte hartu gura dutenek umearen izen-abizenak, jaiotze-data, bizilekua eta argazkia bidali

beharko dute helbide honetara: errementaricasting@gmail.com.

Gasteizko Konoskopik eta Lara Izagirre zuzendari zornotzarraren Gariza Films, elkarlanean



‘Patxi Errementaria’ ipuin tradizionala film bihurtuko dute.

Patxi Errementaria ipuin tradizionalan inspiraturiko filma da Urkijorena, eta aurtengo udazkenean edo neguan daukate aurreikusita grabatzea. Gasteizko Konoskopik eta, besteak beste, *Un Otoño Sin Berlín* filma sortu duen Lara Izagirre zinegile zornotzarraren Gariza Films ekoiztetxeen elkarlanagaz gauzatuko dute proiektua.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Zugan Ni programazioaren barruan antzerkigintzara gerturatzeko aukera izan duten 13 eta 18 urte arteko gazteek ikasturte honetan landutakoa oholtzaratu dute, bihar, Durangoko San Agustin kulturgunean. Zugan Ni ekimenaren aurtengo edizioan, hainbat herritan sortu dituzten gazteen zazpi antzerki taldeetatik bost arituko dira San Agustineko emanaldian.

Zugan Ni ekimenaren barruan sorturiko zazpi taldeetatik bost ariko dira, bihar, San Agustinen

Durangoko biharko emanaldiaren ostean, beste hiru antzerki emanaldi egingo dituzte Zugan Ni ekimenean parte hartu duten antzerkigile gazteek Durangaldean; maiatzaren 5ean, 19:00etan, Iurretako kultur etxean arituko dira; maiatzaren 6an, 19:00etan, Igorren; eta maiatzaren 8an, 17:00etan, Zornotza Aretoan. Antzerkia bul-tatzeko sorturiko ekimenaren antolatzaileek azaldu dutenez, bere herrian eta eskualdeko beste herri batean ditu emanaldiak talde bakoitzak.

Antzerkigile gazteen ikasturteko lanaren emaitza, San Agustinen

Zugan Ni jaialdia egingo dute, Durangoko antzokian, bihar, 20:00etan



Urtero egiten dute ikasturte amaierako jaialdi bat. Iazko emanaldiaren osteko familia argazkia da hau

Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak sorturiko proiektua da Zugan Ni, eta, arduradunek azaldu dutenez, gazteen zazpi antzerki talde sortu dituzte aurtentzen, proiektu horri lotuta: Durangon, Zornotzan eta Igorren

Durango, Iurreta, Igorre eta Zornotzako 70 gaztek parte hartu dute Zugan Ni proiektuan, aurtentzen

bina talde sortu dira, eta beste bat Iurretan. Durango, Iurreta, Igorre eta Zornotzako 70 gaztek parte hartu dute arte eszenikoen sorkuntza prozesu bat hurretik ezagutzeko aukera eskaintzen duen Zugan Ni ekimenean.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



L'utilità dell'inutile

L'utilità dell'inutile du izenburu Nuccio Ordineren azken manifestuak. "Letretakoak" izateagatik zientzia vs. letrak dikotomiaren aurpegi iraingarri zatarrena ezagutu behar izan dugunok mendekutxo hartzen dugu, geure barnerako, horrelako irakurketen bitartez. Baita konbenzimendua elikatzen ere.

Ezagutza berez maitatu behar da, berez, ez sortuko ahal dituen etekinen esperoan. Buru-hutsak, alferrak, ganorabakoak, inutilak,... izango gara baina jarraitu behar dugu aldarrikatzen irakaskuntzarako aurrekontu duina, ikertzaileen promozioa, liburutegiak ondare direla, kulturaren BEZ jaitziera eta abar. Bestela, berehala sortzen da formaziorik gabeko belaunaldi bat. Baina krisi garaietan, aurrekontu horietatik —hezakuntza eta kultura— "errekortatzen" da, hain zuzen, lehenengo lekutik. Utilitarismo, produkzio, etekin, materialismo, kapitalismo eta finantzen familiaren izenean errekkortatu ere. Familia horren eskuetan daude, izan ere, erakundeak.

Garai guztietako pentsalarien gogoetak hartzen ditu Ordinek oinarri, moztzen zaion euro bakoitzarekin, kultura heriotzera gerturatzeko dela argudiatzeko. Elite politikoa gero eta inkultuagoa da, eta entzuleria bera ere halakoxea exijitzen du: pentsatzeko gai ez dena, alegia. Ordinek dixit.

Liburu laburra, atsegina eta... merkea da, gainera.

<http://www.josunearanguren.blogspot.com.es>

Irakulis zornotzarra tartean, Derioko saioan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren saioa, bihar



Joan zen domekan jokatu zuten txapelketaren laugarren kanporaketa.

> BERTSOLARITZA

I.E. Nerea Ibarzabal Lea-Artibaiko bertsolariak irabazi zuen joan zen domekan Ondarroan jokatu zuten Bizkaiko Bertsolari Txapelketako laugarren kanporaketa. Beikozini antzokian kantatu zuen laugarren kanporaketako bertsolari seikoteak.

188, 5 puntu bildu zituen lehenengo sailkatu zen Nerea Ibarzabal bertsolariak, eta laugarren eta seigarren postua egin zuten saio horretan parte hartu zuten Durangaldeko bertsolariak: Txaber Altube abadiñarrak 171 puntu batu zituen, eta 132 Peio Azkarate durangarrak.

Apirilaren 30ean, Derion jokatu dute Bizkaiko Bertsolari

Txapelketaren Udabarriko Fasearen hurrengo kanporaketa. Xabier Irakulis zornotzarra parte hartuko du saio horretan.

Altubek laugarren, eta Azkaratek seigarren egin zuten, apirilaren 24ko Ondarroako saioan

Beragaz batera, Aissa Intxausti, Beñat Vidal, Imanol Uria, Ion Barrocal, Itxaso Paia, Koldo Gezuraga eta Mikel Goiriarena ere arituko dira kantuan. Derioko Gurea aretoan izango da hitzordua, bihar, 17:30ean.

Zugan Ni eguna
Gazteen Antzerki Jaialdia

Apirilaren 30ean, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

APIRILAK 29
21:30ean
DURANG'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

MAIATZAK 6
22:30ean
DURANGO(H)OTS JAM SESSION
KONTZERTUA

MAIATZAK 12
20:00etan
JUKEBOX EKAHITZA
PERFORMANZA

IBAIZABAL IKASTOLA, KALITATEZKO ESKAINTZA EUSKALDUNA

Zein da guk guretzako nahiko genukeen ikastola? Galdera hori egiten diogu gure buruari eta horren arabera antolatzen dugu ikastolako jarduera akademikoa.

Ikasketa prozesua esanguratsua izan dadin ikaslea testuinguru errealean aurrean jartzen dugu, lan munduan beharrezkoak izango dituen gaitasunak garatu ditzan. Jendaurrean komunikatzen ikasi, taldean lan egiten ikasi, ikasten ikasi, denbora ondo kudeatzen ikasi, gure eguneroko lanaren erdigunean kokatzen diren zeharlerroak dira. Erroka ez da erraza: XXI. menderako ikasleak prestatu behar ditugu. Mundu erabat aldakorra izango dute aurrean: lanpostu ezberdinak, bizitoki ezberdinak... Eta horiei aurre egiteko tresna garrantzitsu bat dago: ikaslea bere buruaz seguru sentitzea.

Ibaizabalen eskaintza akademikoak hiru alor nagusi ditu:

- Batxilergoa
- Haur hezkuntzako goi zikloa
- Lanbide gaitasun ziurtagiriak

BATXILERGOA

Giza eta Gizarte Zientzia Batxilergoa, eta Zientziak Batxilergoa eskaintzen ditugu Ibaizabalen. Batxilergoa etorkizuna prestatzeko etapa erabakigarria denez, Ibaizabalen gertutik jarraitzen diogu ikaslearen garapenari. Tutoreak jarraipen akademikoa

eta afektiboa eskaintzen dizkio ikasleari. Ikaslea ikastolako parte da, eta honi eskerrak, gustura sentitzen da. Honek eragin positiboa du bere jardun akademikoan.

Ikaslea gure lanaren erdigunean kokatzen da. Eta ikasleak bidelagun izango du bi ikastur-tetan ikastolako irakasle taldea. Honi eskerrak ikasleak babesa eta konfiantza sentitzen ditu. Honen adierazle da, 34 ikasle-ekin hasi zen ikastolak gaur egun 179 ikasle dituela. Matrikularen goranzko joerak epe ertainean jarraitu egingo duela aurreikusten denez, laugarren lerroa zabaldu dugu. Honi erantzuteko eraikin berria egin genuen 2013ko irailean, 1.000 m2 dituen.

Orientazioaren garrantzia

Ikasleen %100 prestatzea da gure helburua. Batxilergoa amaitu ondoren, ikasleak bere ibilbide profesionala nora bideratu nahi duen erabaki beharko du. Ikasketa horiek egingo dituela bermatzeko, batxilergoan bere ikasketa plana ondo planifikatu behar du ikasleak. Batxilergoa amaitu ondoren hauta proga bat izango du ikasleak, bere azken notaren %40 balio duena. Hauta proga hau ondo egiteko, aurrez erabaki egokiak hartu beharko ditu ikasleak. Zeregin honetan laguntzeko Ibaizabalen bereziki lantzen da orientazioa. Gaur

egun, ikasle gehienek hautatu dituzten ikasketak egiten amaitzen dute.

Parte hartzea sustatuz

Ibaizabal ikastola kooperatiba integrala da, eta, egitura horri esker, gurasoek zuzeneko esku-hartzea dute ikastolako erabaki nagusietan. Egiturak berak bermatzen du ikas komunitate osoaren parte-hartzea, eta ezaugarri horrek ikastola guztiona izatea eragiten du. Gure egunerokoan garrantzitsuak diren erabakiak guztion artean hartzen ditugu, ikas komunitatea osatzen dugun guztion iritzia kontuan hartuz. Euskal nortasuna oinarri izanik, munduko kulturetara zabalik dagoen ikuspegia lantzen dugu.

LANBIDE HEZIKETA

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa eskaintzen da Ibaizabalen. Ziklo honek haurtzaindegietako teknikari lana egiteko zein unibertsitatean ikasteko aukera zabaltzen du. Teoria eta praktika uztartzen dira zikloan eta ikasleak erroka ezberdinei aurre egiten ikasten du: ipuinak kontatzen, gurasoen aurreko aurkezpenak egiten, jostailuak sortzen.

Bazkide diren ikastolekin dagoen harreman sareak etengabeko hobekuntza ahaleginean jartzen gaitu, gertutik ezagutzen ditugulako sektore honetako beharrak zeintzuk diren.



BATXILERGOA

Matrikula epea:

maiatzaren 2tik 12ra

Ate irekien

eguna: maiatzaren 9an,
18:30ean

HAUR HEZKUNTZAKO GOI ZIKLOA

Ate irekien

eguna: maiatzaren 19an,
18:30ean



LANBIDE GAITASUN ZIURTAGIRIAK



Ikastaro hauek hiru edo lau hileko iraupena izaten dute. Bereziki langabeei zuzendutakoak dira. Ikastaroa eginda lortzen diren tituluak homologatuak dira. Hauek dira eskaintzen diren lanbide ziurtagiriak:

- **Sorosle ikastaroa (290 ordu)**
- **Arreta sozio sanitarioa mendekotasuna duten pertsoneri (370 ordu)**
** Laneratze tasa %70etik gorakoa
- **Komunitate bitartekotza (50 ordu)**

Interesatuak idatzi: ikastaroak@ibaizabalikastola.eus helbidera

- Konfiantzan, ikastola -



idazkaritza@ibaizabalikastola.eus

Tel.: 946 215 877

www.ibaizabalikastola.eus

Maiatzaren 29an Ibilaldia, Durangon

dagigun!



IBILALDIA 2016
DURANGO

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es
Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

PODOLOGIA

ESTETIKA

OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOIA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOIA

Kiropodia, onikopatía, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13

ODONTOLOGIA

PSIKOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200
Mug.: 683 158 380

RPS: 112/13

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

Beñat Intxausti | Txirrindularia | Muxika, Zornotzan bizi da, 1986

“Gorputzaldi ona berreskuratu eta errepidera azkar itzultzeko gogoia daukat”

Mononukleosi batek aurtengo egutegia aldatu dion arren, berriro errepidera itzultzeko gogoz dago Sky taldeko txirrindularia

> TXIRRINDULARITZA P. Bustindui Denboraldia oso ondo hasi zuen, baina gaixotasun batek bere helburu nagusia zen Italiako Girotik kanpo utzi du. Movistar Team taldean bost urte eman ondoren, Team Sky talde indartsura egin zuen salto pasa den neguan. Chris Froome eta Mikel Landaren mailako txirrindulariak erreferente diren taldean jasotako babes gorai-patzen du.

Mononukleosi batek jota, otsailetik errepidera bueltatu ezinik zabilta. Zelan zaude orain?

Forma oso onean ekin nion denboraldiari Valentziako itzulian, baina etxera itzuli eta egun batzuetara, gaixotu egin nintzen. Egoera ikusita, egun batzuetara odol analitika bat egin, eta egun batzuetara mononukleosia neukala diagnostikatu zidaten medikuek. Horren ondorioz, bi hilabete eman behar izan ditut bizikleta hartu barik. Orain, apurka-apurka irten naiz entrenatzera, erritmo lasaian, gorputzaldi ona berreskuratzeko asmoz.

Denboraldia ondo hasi zenuen Valentzian, bigarren postua lortuz Xorret de Catiko etapan eta hirugarren eginez sailkapen nagusian. Urte hasiera honi begira prestatu zenuen egutegia?

Negua ederki joan zen, aurre-denboraldiko saioak oso ondo irten ziren eta. Egutegiko lehen saio honi begira prestatu genuen aurre-denboraldia, Italiako Giroari begira lehen lasterketetan sasoi puntua hartzen joateko. Mononukleosia dela-eta, helburu guztiak aldatu behar izan ditut, eta, orain, sasoi berreskuratzeko da nire helburu bakarra.

Pena handia da azken urteetan hain ondo ibili zaren Italiako Giroa galtzea. Zeintzuk izango dira orain zure helburuak?

Momentuz, indarberritzeko saioekin baino ez nabil. Lasai nabil, presarik barik, orain ondo osatzea baita niretzako garrantzitsuena. Ez dakit oraindik noiz itzuliko naizen lasterketara.

Urte batzuk eman dituzu Frantziako Tourrera eta Espainiako Vueltara joan barik. Plan aldaketa honekin, aurtengo lasterketa hauetakoren batera itzuliko zara?

Seguruenik bai. Italiako Giroa alboratuta daukat dagoeneko, eta beste egutegi alternatibo bat prestatu beharko dugu. Ez dakit Tourrean edo Vueltan izango naizen, ikusi beharra dago. Oraindik, baina, epe luzeko kontuak dira horiek. Momentuz, maiatzean edo ekainean lasterketara itzultzea dut helburu.

Bi urterako fitxatu zenuen Skyrekin. Zerk eraman zintuen talde britainiarra?

Oso harrera ona izan dut. Neguan egun asko eman genituen elkarrekin Mallorcako *stagean*, eta giro aparta dago. Niretzat esperientzia berria zen, kanpoko talde batera joateak apur bat izutu egiten baitzaitu hasieran. Zorionez, ezagun asko nituen taldean, eta hauek erraztu egin didate dena. Gaixotasunaren ondorioz, aste batzuk etxean eman ditut, baina gogotsu nago laster talde dinamikara itzultzeko.

‘Aurreko asteburuan Liege Bastogne Liege klasikoa berenagatu zuen Poelsek. Froome eta Landa Tourrerako eta Giorako hautagai nagusiak dira. Itzuli handiak eta klasikoak irabazteko presio handiagoa da Skyen beste taldeetan baino?

Erreferentzia talde bat da gurea. Lasterketa guztietan faboritoak gara, eta presio horrek ardura

“**Lasterketa guztietan faborito izatea ardura handia da taldekideontzat**”

“**Zoragarria da talde berri batean taldekide ezagunak izatea**”



Aurtengo lehen denboraldia Sky taldean txirrindulari zornotzarrak.

eta erantzukizun handia eskatzen du. Primeran egiten dugu lan, bakoitzak oso ondo baitaiki bere egitekoa zein den. Azkenean, lan gogor honek emaitza onak ekartzen ditu.

Mikel Landa taldekideak Italiako Giroan zer errendimendu eskaini dezakeela uste duzu?

Lasterketa garrantzitsu bat irabazi du Trentinon, eta oso egocera onean dago. Giorako ondo helduko da, talde ona eramango du, eta sailkapen nagusia irabazteko faboritoen artean egongo da. Oso lasterketa ona egingo duelakoan nago, gogotsu baitago.

Denboraldi honetan eusky ezizena modan jarri da. Xabier Zandio, Mikel Landa, Mikel Nieve, David Lopez eta zu baitzaudete talde britainiarrean. Poztekoa da egungo txirrindularitzan erreferentea den taldeak euskal txirrindulariengan konfiantza izatea?

Zoragarria da talde berri batean taldekide ezagunak izatea. Fitxatu nuenean, asko baloratu nuen alderdi hori. Txirrindulariez aparte, mekanikari eta masajista euskaldunak ere baditugu taldean. Azkenean, Sky-ren moduko talde indartsu batek euskal txirrindulariengan konfiantza izatea pozgarria da guretzat.

Mintzopote

Zatoz Mintzopotera!

Maiatzaren 6an, 19:00etan, Dantzari Auzunean
Berbetarako eta lagunarteko gogoia ekartzen baduzu, edaria gure kontu!

Zer eman dizu euskarak?
Eta zuk euskarari?

Adi!
Izena eman
apirilak 29 baino lehen:
idazkaritza@iurreta.net
Tel.: 946 201 200



Joseba Kerejeta, agur urpeko nabigatzaileari

Urpeko arrantza mundu zabala eta mundutarrak ezagutzeko bitarteko lez erabili zuen



Joseba Kerejeta Indonesiako herrirka batean, bertako gaztetxoek inguratuta. Josetxo Errondosoro

> URPEKO ARRANTZA J.D.

Joseba Kerejeta durangarra urpeko arrantza praktikatzen zebilela hil zen, Miamin (AEB), joan zen barikuan. 47 urte zituen eta alaba biren aita zen. Horrela, urpeko arrantzak bere enbaxadore nagusia galdu zuen, eta munduak bidaiazale eta abenturazale grinatsu bat, goi mailako kirolaria baino gehiago izan baitzen. Urpeko arrantza eta mundu zabala; bere arima inarosten zuten pasioetako bi uztartuz, hamaika herrialde eta kultura desberdin bisitatu eta ezagutu zituen. Eta, toki askotan, denboran iraungo duen lorratza utzi zuen.

Josetxo Errondosorok gertuko laguna zuen Kerejeta. Urpeko arrantzaren bidez, orain 25 urte elkar ezagutu zuten, eta, 1999tik aurrera, Kerejetaren ur azpiko abentura askoren kronikak idatzi zituen. “Itsasoa maite zuen, eta urpeko arrantza barik ez dago Joseba ulertzerik”, dio. Baina, aldi berean, “kirolaria baino gehiago bidaiaria” zela uste du: “Mende batzuk berandu jaio zela esaten zidan batzuetan; Cristobal Colon eta Hernan Cortesen sasoiari bizitzea gustatuko litzaiokeela, mundua deskubri-

tzeko. Tokiak lehenengoz ikusteak eragiten duen zirrara hori ez zuen burutik kentzen”. Mapamundia besarkatuta bizi zen: “Zenbat kilometro egingo ote zituen hegazkinez bere bizitzan! eta beti leiho ondoko eserlekua nahi izaten zuen handik begiratzeko. Intentsitate horregaz bizi zen, dena ezagutu eta ikusi nahi horregaz”.

Hogeitaka urteko Kerejetak Hegoamerika goitik behera zeharkatu zuen, herrixkarik herrirka, berak arrantzatutakoa ostatuaren truke eskainiz. Ondoren, handik urte batzuetara, filosofia berdina erabiliz, Jesus Villalva bidaide fidela izan zuen ondoan, antzerako beste hamaika abenturatan: “Tokian tokiko jendeagaz erlazioatzeko oso modu aproposa zen. Euren ohiko bizimodua barrutik ezagutzeko aukera eskaintzen zigun”, dio 13 urtez Derioko suhiltzaile parkean Kerejetaren lankide izan zen durangarrak.

Normalean, herrixkentangat oso errentagarria zen Kerejetaren bisita: “Gogoan dut Madagaskarreko irla txiki eta isolatu batean egon ginenekoa. Garitik bizi ziren, ez zuten arrantzarako amurik ere. Arrantzatzen ge-

nuena eman egiten genien, eta denentzako adina heltzen zen. Imaginatu zer ginen eurentzat, oso aintzat gintuzten. Ez zuten ondasun material askorik ordainetan emateko, baina beren estimua eta afektua eskaintzen zizkiguten”. Denboran badirauen estimua da: “Azken egunetan, doluminak emateko zenbat herrialdetatik deitu didaten neuk ere ez dakit: Australia, Hegoamerika, Aljeria, Maroko... Kerejetak dena ematen baitzuen. Pertsona naturala eta irekia zen, eta besteekin erlazioatzeko erraztasuna zuen”.

Kirol baten enbaxadore

Kerejetak maite zuen urpeko arrantza, eta kirol hori ezagutara emateko hamaika dokumen-

taletan parte hartu zuen. “Urpeko arrantzaren enbaxadorea” zela dio Espainiako txapelketa bi irabazi dituen Hector Ripolles urpekariak. Ur azpiko grabazioetarako sortutako ekoizte-txearen bitartez, dibulgaziozko hainbat dokumentaletan elkarrekin lan egin zuten: “Irabazitako txapelketei dagokienez, badaude palmares hobea dutenak, baina urpeko arrantzan norbait aintzakotzat hartua izan bada, hori, dudarik barik, Kerejeta izan da”, dio Ripollesek tonu seguruan: “Urpeko arrantzale denek, modu batera edo bestera, Kerejeta bat izan gura zuten: mundua bidaiatzen zuen abenturazalea, hamaika tokitan kontaktuak zituena... urpeko arrantzale denoi joan zaigu zerbait Kerejeta hil denean”.

Munduko txapeldun

Kirol arloan ere puntara heldu zen, 2008an, urpeko arrantzako munduko txapelketa irabazi zuen Margarita Irltako El Tirano herrian. Eta, beharbada, txapelketa horretan gertatutako jazoera batek islatzen du ondoen Kerejetak kirolarekiko eta bizitzarekiko zuen filosofia. Txapelketaren aurreko prestaketa egunak hango familia baten etxean eman zituen. Aspalditik elkar ezagutzen zuten. Familia horretako semea txapelketaren aurreko egunetan hil zen urpeko arrantzan zebilela. Munduko txapelketa irabazi ostean, Kerejetak bere garaikurra eman zien.



Kerejeta —ezkerrean— Venezuelako Los Testigos artxipelagoan. J.E.

ADITUAREN TXOKOA

KEPA ARROITAJAUREGI

Pilota teknikaria



Argiak eta ilunak

Bizitza arruntean bezala, pilota munduan ere denetarik ematen da. Onetik zein txarretik. Azken egunetan, hainbat berri izan dira, eta batzuk pozgarriak edo esperantzagarriak izan badira ere, batek hartu du protagonismo nagusia. Albiste txarrenak, alegia.

Juan Mtnez Irujo handiak uko egin dio manomanista jokatzeari. Ondorioz, urteko lehiaketa nagusia herren geratu da, nolabait. Nire aburuz, erabakia penagarria bada ere, zentzuzkoena izan da. Kirolariak ehuneko ehuneko egon behar du lehiaketa garrantzitsu bati aurre egiteko.

Dena den, datorkiguna asteburu oparoa dela ere argi dago. Argi izpi distiratsuek agertu baitira aipaturiko manomanistan. Artola, Ezkurdia eta, batez ere, Iribarriaren aurrean, galtzak bete lan izango dituzte Bengoetxeak, Urrutik eta Aimarrek, seguru. Hiru norgehiagoka ikusgarri gaur, bihar eta etzi. Taldeburuek aurrera jarraituko ote dute?

Profesional mailatik behera eginez, GRAVNI txapelketa aipatu behar. Finaletan bertoko pilotari batzuk izango dira. Eskuz ezker hormako finalean Azpiri eta Larrinaga (Elorrio), eskuz banaka trinketean Aspuru (Abadiño), eta Itsaso Pradera mallabiarra nesken gomazko paletan. Animo!

Amaitzeko, komunikabideetan isla itzela izan duen NER Group pilota federazioaren akordioa ere aipatu behar: 400.000 euro hiru urtean, pilota sustrailetatik lantzeko konpromisoa hartuta. Berri pozgarria da, baina ‘onerako’ izango ote da? Federazio ezberdinak daude tartean, eta elkarren arteko harremana ez da aproposa. Esperantza izan behar.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Erreakzioa lehentxoago heldu izan balitz...

Bigarren itzuli bikain bati esker, Elorrioko Buskantzak liga irabazteko aukera txiki bat du oraindik



Aurten Elorrioko Buskantza taldea osatzen duten jokalaririk. Elorrioko Buskantza

> ARETO-FUTBOLA J.Derteano Elorrioko Buskantzak taldeko makineria abiadura bizi-bizian jartzea lortu du azken hiru hileetan. Edozein arerio aurrera-

tzeko ziztuan dabilta, baina, laster, errepidea amaituko zaie: biderik ez bolidoari etekina ateratzeko. Lehen itzuli kas- kar baten ostean, bigarreneko

erreakzioa ikaragarria izan da: zortzi garaipen eta berdinketa bat, otsail hasieratik hona. Bolada horri esker, Hirugarren Mailako liga irabazteko aukera

txikiren batekin heldu dira azken txanpara.

Talde bakarra igoko da Hirugarren Mailatik. Jardunaldi bi eta sei puntu falta dira liga amaitzeko; Laskorain liderraren eta Elorrioko Buskantzaren artean dagoen aldea, hain justu. Buskantzak falta diren biak irabazi eta Laskorainek galdu egin beharko lituzke. Gainera, Elorrioko taldearen bidean beste traba bi daude: Donostiako Internacional eta Bilbo bi eta bost puntu aurretik dituzte, hurrenez hurren.

Elorrioko Buskantza gertzen diren partidu biak irabazteko kapaz da. Baita hurrengo arerioa Bilbo bera bada ere: "Momentu honetan, edozeini irabazteko moduan gaudela erakutsi dugu", dio Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaileak. Datuek ere horixe diote: 52 gol alde eta 27

kontra azken 9 partiduetan, eta joan zen asteburuan 5-9 irabazi zuten, non eta liderraren kantxan. Orain hile eta erdi, berriz, 3-1 menderatu zuten Internacional. Beraz, zapatuan, 18:00etan, Bilbo mende hartzeko kapaz dira. Kontua da, seguruenik, partiduak faltako zaizkiela behetik gorako bidea osatzeko. Elorriarren erreakzioa lehentxoago heldu balitz...

Edozelan ere, balizko aukera hori ez dute zama moduan hartzen: "Gue ez gaude liga irabaziko dugun ala ez pentsatzen. Egin dako bigarren itzuliagaz oso pozik gaude. Ondo entrenatzen gabiltza, eta horren fruituak jasotzen ari gara. Guretzat hori da behinena". Zaleekin batera denboraldiari agur esateko modua ere izango da.

Bigarren itzuliko bolada onaren sekretua "konfiantza" da, Saenz de la Cuestaren ustez: "Batuetan, ondo jokatu ere, baloia ez da sartzen, eta bestetan bai. Orain, sartuko den konfiantza dugu".

Tabirakok irabaziz gero, Lauko Finala Durangon

> SASKIBALOA J.D.

Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiak orain arteko partidurik garrantzitsuena jokatu du bihar, 18:00etan hasita. Tabirako eta Cantolagua izango dira aurrez aurre: bigarrena laugarrenaren aurka. Garaipen bakarra dago bien artean. Talde biak Final Four-erako sailkatuta daude, baina irabazleak maiatzaren 7an eta 8an jokatu den fase hori etxean antolatze eskubi- dea irabaziko du.

Igoera lortzeko bigarren aukera, bihar, Sasikoak

> ARETO-FUTBOLA J.D.

Sasikoako emakumeen taldea mailaz igo daiteke asteburuan. Nahikoa dute berdinketa. Baina ez dute edozelako aurkaria izango parez pare: bigarren tokian sailkatuta dagoen Bilbo B. Hauek goera dute amets, eta ez dira denbora-pasa etorriko. Partidua zapatuan, 17:00etan, hasiko da Landako kirolde- gian.

Joan zen asteberuan, denboraldiko lehenengo porrota jaso zuen Sasikoak Basaurira egin- dako bisitan: 1-0.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA (gizonak)

Amorebieta futbol taldea - Barakaldo

· Zapatuan, 16:00etan, Urritxen.

EUSKAL LIGA (emakumeak)

Elorrio - Erandio

· Zapatuan, 18:30ean Eleizalden.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA (gizonak)

Presion Break - Sasikoa

· Zapatuan, 16:50ean, Berrizburun.

Elorrioko Buskantza - Bilbo

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Bilbo B

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

> SASKIBALOA

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Cantolagua

· Zapatuan, 18:00etan, Landakon.

LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - Iraurgi

· Zapatuan, 20:00etan, Landakon.

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

- Laso-Lasa / Zubizarreta-

Alduntzin - Bakaikoa-Medina / Ugalde-Erasun

· Eguenean, 21:15ean, Mallabian.

Jhu
JESUITAK
Durango
San Jose Ikastetxea

BATXILERGOA 2016-2017

- Ibilbide malguak, aukerako eskaintza zabalarekin.
- Banan-banakako jarraipena.
- Irakaskuntzarako metodologietan eta baliabide teknologikoetan, etengabeko gaurkotzea bilatzen dugu.

Informazioa eta aurretiko izen-ematearen kudeaketa

- Ikastetxeko idazkaritzan 08:00etatik 13:15era eta 14:30etik 18:00ak bitartean.

Harremanetarako:

AITOR GARCIA (Batxilergoko koordinatzailea)

